

AUTOEBALUAZIOA**IV. MODULUA: SENDAGAIEN ADMINISTRAZIOA BELARRIETAN**

1. Zer lortu nahi dugu sendagaiak belarrietan administratzen direnean?

- a) Administrazio topikoa kanpo-belarrian
- b) Administrazio topikoa erdi-belarrian
- c) Administrazio topikoa barne-belarrian
- d) Eragin sistemikoa

2. Erdi-belarrian ematen diren infekzioak tratatzeko:

- a) Antibiotikoak bide sistemikotik administratzen dira
- b) Antibiotikoak kanpo-entzunbidean administratzen dira
- c) Antibiotikoak erdi-belarrian administratzen dira
- d) Erantzun guztiak okerrak dira

3. Tanten administrazioa belarrietan

- a) Kontraindikatua dago mintz tinpanikoa zulatua badago
- b) Gaixoa zutik dagoela egiten da
- c) Ontzia hozkailutik atera bezain pronto egiten da
- d) Administratu eta gero kotoia jarri behar da formulazioa ez ateratzeko

4. Entzunbidearen infekzioen aurkako mekanismoen artean hauek ditugu:

- a) Epitelioaren osotasuna
- b) pHa apur bat azidoa
- c) Ezkoaren jariaketa
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira